

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2013ko otsailaren 8a. IX. urtea. 2.540. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Lehertu da sei egunez luzatuko den festa Tolosan. Plaza Zaharra txiki geratu zen eguraldiak ere oztopatu ez zuen txupinazoaren uneaz gozatzeko. E.MAIZ

## Hasi dira kolorez betetako egunak

Ostegun Gizen egunari hasiera Poca Tripa txarangak botatako suziriak eman dio; Inauterizale Kuttun aipamena jaso dute «50 urtetan inauteriak alaitzeagatik»

Festaren hasierarekin bat eginez, Herrira-k euskal preso eta iheslarien aldeko topa egin du txosnagunean; jende gutxi animatu da zezen plazara txarangekin sartzen **3-5**



### EZ MOLESTATU

Ez dugu asmorik negu osoan etxetik irteleko.  
EUSKALTELEN ZUNTZ OPTIKOA daukagu.



2013/02/15a baino lehen Euskaltelean Zuntz Optikoa aldi ematen duzientzat bala du sustapen honek. %50eko deskontua 20 Mega DuCaren eta Premium Teletastaren hileko kutsan, eta %48,7ko deskontua linearen kutsan, aktibatzen den egunetik hasi eta 12 hilabetez aplikatzen da. Zuntzean eta Randa Zabalean 12 hilabetez irauteko konpromisoa. Baga oinuz eskatzeagatik kargua. 15 € produktu eta biete gabeko hilabete bakoitzeko. Bate hartzen ditu estakuko finaketa-ordainak (4.000 minutu) eta estakuko mugikonezko deia (50 minutu). Zuntz Optikoa instalazio berrientzat soilik da dardara aldi. Deskodetzailea ez dago sarfuta. Premium Zuntz Teknikoa duen lehen hiru hilabetezko langaberiak aurreko, berriz, 3,5 € hileko. BEZA ez dago sarfuta.

**BENETAKO**  
**20 MEGA**  
**+ PREMIUM TBa**  
+ biko eta mugikonezko deia

Hilean  
**35,8€** soilik  
ordainduta, urtebetez.

**LINEA BADAHA**

**logika line**  
San Frantzisko, 19

**euskaltel**  
Banatzaile ofiziala



Miren Arregi &gt; Inauterizalea

## «Urteko egunik hoberenak dira, onena ateratzen dugu»

Rebeka Calvo

Miren Arregiri (Tolosa, 1981) Asteartita da inauterietatik gehien gustatzen zaion eguna, baina batez ere, mozorrotzea maite du. Bere ustez, inauterietan urteko kontu txar guztiak atzean uzten dira, eta tolosarrak eraldatu egiten dira.

**Nola bizitzen dituzu inauterien aurreko asteak?**

Emozio askorekin. Txaranga bat entzun eta saltoka hasten naiz, umeen moduan. Badakit datozen egunetan nire ardura bakarria mozorroa aukeratzea eta ondo pasatzea izango dela.

**Zer dira zuretzat Tolosako inauteriak?**

Urteko egunik onenak dira. Lotsak, tristurak eta beldurrak alde batera utzi, eta guk, tolosarrok, dugun onena ateratzen dugu. Mundiala du urtean zehar, kalean, serio-serio ikusten duzun gizona, inauterietan gimnastika erritmikoko neskatxaz jantzita San Frantzizkon txiribuelak egi-

ten ikustea. Inauterietan bakarrik gertatzen da hori.

**Urtero mozorrotzen zara? Zein mozorro gogoratzen duzu?**

Bai, noski. Mozorroa inauterietako parte garrantzitsua da. Eraldaketa ezinbestekoa da [kar, kar, kar]. Duela urte batzuk Aralez atera ginen eta oso polita geratu zitzaigun.

**Txarangazalea al zara? Zein da txarangekin pasatzen duzun unerik kuttunena?**

Bai oso. Kaleetan zehar noala, txaranga bat topatu eta atzetik denak dantzan topatzea, hori da niretzat momenturik onena.

**Denbora asko ematen al dizu mozorroa prestatzea?**

Ez. Igandeko mozorroa kuadrillakoen artean aukeratzen dugu, eta ez diogu buruari buelta gehiegirik ematen. Ideia bat aukeratu, eta etxeko trapuekin forma ematen saiatzen gara. Astelenitan eta Asteartitan, ordea, urteetan zehar bisitatu ditudan herrialdeetako arropa bereziak jartzea gustatzen zait.

### ↓ Tragoxka batean

- **Egunik onena.** Asteartita.
- **Inauterietako une bat.** Goizean etxetik atera eta, bat batean, txarangarekin topo egiten dudanean. Bihotzaren taupadek bat egiten dute txarangaren erritmoarekin.
- **Mozorro gogoangarri bat.** Lagun batzuk kotxe-gizonez jantzi ziren. Kaleko edozein tokitan makurtu, eta kotxe itxura hartzen zuten. Umeak gerturatzaren zirenean, altxa egiten ziren eta ingurukoei sekulako sustoa eman. Oso barregarria izan zen.
- **Txaranga doinu bat.** Diana, dudarik gabe.
- **Eguna ala gaua.** Biak, ezin da aukeratu!

**Bisitatu etortzen direnak, berdin bizitzen al dituzte inauteriak?**

Berdin ez, horretarako tolosarra izan behar zara, txarangaz gain herriaren eta herritarren eraldaketaz jabetzea kristorena da, eta



HITZA

horretarako bertakoa izatea ezinbestekoa da. Hala ere, gozatzen dute, eta asko. Behin, Irlandako eta Frantziako lagunak gonbidatu nituen, eta dutxatzera bakarrik etortzen ziren etxera. Diana, txaranga, karrozak, tabernak, zezenak... gau eta egun pasa zuten jai giroan.

**Inauteriren batzuk kanpoan harritatu al zaituzte? Nola bizitu dituzu egun horiek?**

Bai, nahi baino gehiago gainera. Sekulako pena sentitzen nuen eta azken momentuko hegazkin mer-

ke baten bila ere hasten nintzen. Gerora inauteriak gehiago gozatzeko balio izan dit.

**Nolako gorputza duzu Hausterre egunean? Zer pentsatzen duzu esnatzerakoan?**

Puf... gorputzak off egiten du. Ahotsik gabe geratzen naiz urtero, eta astebete inguru kostatzen zait gorputza berriro ere martxan jartzea. Hori bai, astebete pasa, eta pentsatzen hasten naiz udan inauterien bigarren zatia antolatuta beharko genukeela [kar, kar, kar].

## Irudia



## PRESO ETA IHESLARIAK GOGOAN IZAN DITUZTE

Tolosako udaletxeko balkoian 12:00etan lehertu zen suziria, eta ordubete beranduego, txosnagunean euskal preso eta iheslariak gogoan izan zituzten. Beraien omenezko topa egin zuten hainbat herritarrek: «Euskal Herrian garai ezberdinak bizi ditugu, egoera politiko berri baten aurrean aurkitzen baikara. Baina, gatazkaren konponbidera bidean gaur egun pairatzen dugun espetxe politika ulergaitza da», ekarri zuten go-

gora. Txosnagunekoa ez zen izan preso eta iheslariak gogoan izan zituzten une bakarra atzokoan. Zezen plazako ikuskizuna hasi aurretik, dozenaka solidario sartu ziren zezen plaza barrura, preso eta iheslariak Euskal Herriratzeko aldarrikapena eginez. Banderola handi bat jarri zuten zezen plazaren erdian dagoen oholta gainean eta hainbat banderola erakutsi zituzten harmailetara. E.M./I.G.L.

## Jende gutxi animatu da zezen plaza barrura txarangekin

140 gonbidapen banatu dira egun bakoitzeko, baina atzokoan hogeitortu pertsona inguruk parte hartu zuten

I. Garcia Landa Tolosa

Iritsi da azkenean Ostegun Gizona, eta baita zezen plazara joateko lehen eguna ere. Zeresana eman duen gaia izan da txarangekin batera zezen plaza barrura sartzeko gonbidapenak banatzea. 140 banatu dira zezen plazan ikuskizunak dauden egun bakoitzeko, baina atzokoan guztira hogeitortu lagun inguru animatu ziren zezen plazari itzulita ematera.

Mikel Arreseigor zinegotziak azaldu duenez, «ziurrenik eguraldiagatik ez da jende gehiago animatu parte hartzerako». Zezen plazara sartzeko unean arazorik ez dela izan gaineratu du Arreseigorrak. Zaldunitan, Astelenetan eta Asteartetan jende gehiago animatu dela uste du zinegotziak: «Mozorrotuta egonik baliteke jende gehiagok parte hartzea. Ikusi beharko da eguraldia ere nolakoa etortzen den».

Hiru txaranga eta konpartsa izan ziren zezen plazako itzulian: Pintxana txaranga, On Ostegun Gizen konpartsa bere txarangarekin, eta Kabi Alai elkarte txaranga eta korporazioa. Hauek denak iristerako zezen plazako harmailetan beteta zeuden.



Goian, Pintxana kaleak alaitzen; behean, zezen ikuskizunaren une bat. I.G.



Inauterizaleak Kabi Alai elkarte korporazioarekin batera sartu ziren, atzo, zezen plazako itzulita ematera. I. GARCIA

[www.inmosalbide.com](http://www.inmosalbide.com)

**SALBIDE**  
Higiezinen zerbitzuak

**Aia.** Baserrira berritu berria. 125m<sup>2</sup>-ko bi solairu ditu. 25 m<sup>2</sup>-ko terraza. Terrenoa, 110.000m<sup>2</sup>. 50.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

**Bergara.** Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldia, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

**Donostia.** Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Itzina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

**Iraeta.** Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. 92m<sup>2</sup> ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria. 54.000.000 pezeta.

**Zarautz.** SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Urtero moduan, txiki geratu zen atzokoan plaza Zaharra. ||

**Arriaran**  
—1949—

**ABANTAILA HOBENETAZBALIATU ZAITEZ!!!**

**TXARTELEKO DESKONTUA %50AN GEHITU**

**GARBI EZAZU ZURE KOTXEA DOHAIN**  
ARRIARAN GASOLINDEGIAN  
GASOLINAZ HORNITUTZ GERO  
\*ONARRIA. Informazio zehazki promozio honetaz jakinaraz gero.

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.  
LARRAMENDI, 28, 38 posta kutxa  
20400 TOLOSA  
GIPUZKOA

TEL. (943) 67.48.28  
FAX. (943) 67.49.82  
www.arriaran.com

**GOIKOETXEA**  
sagardotegia

Elbarrena Kalea, Aroztegi baserria, 9  
20490 - Lizartza - Tel.: 609 71 42 03



Ostegun Gizen udalarteko bakoira irten zirela unea. Poca Tripa txarangakoek jaso dute aurten inauteriazale kuttun alpermena. Festari hasiera ematen dion pregola jakurtzen. ||

Irigo Terradillos Tolosa

Inauterien hiriburu eta erdi-gune da Tolosa. Baina, nagusitasun eta handitasun hori motz geratzen zaio, eta urteko gainerako egunetara zabaldu nahi du. Lehengora itzuli eta Gipuzkoako hiriburu izatera berreskuratzeko aukera aztertzen ari da, eta hori lortzeko lehen pausoa Donostia eta Tolosa lotuko dituen metroa litzateke.

Aldarrikapen hori lau haizeetara zabalduz eman dio inauteriei hasiera Kabi Alai elkarteko kideek osatzen duten korporazioak. Agian, Gipuzkoako hiri nagusi izateko araztaren bat kentzeko, Tolosari murriztu dion lekua emateko edo eskualdea astintzen duen krisia arintzeko baliabideak uste ditu.

Helburua deua delakoa izanda ere, hitz hori behintzat debekatu egin dute inauterietako agintariek datozen zapi egunetarako. Debekatzea debekatutik dagoen jai hauetan, «krisia» hitza alperrean erabili omen dago balmenetuta. Nolabaitko zentzua ere baduela debekatu honek onartu beharra dago, inauterietan oinarritutako legea baina eguneroko lanak, arazoak edota tristurak alde batera utzi eta jai giroaz gozatea.

Bada, herretara gonbidatu dituzte, beste behin, Kabi Alai elkarteko tolosar nahiz Tolosara egunotan gertatzen direnak. Herriekin batera, zortizkoak tartea ere izan dute pregola botatzeko unean. Aurten Poca Tripa txarangak izendatu dute inauteriazale kuttun, «50 urte daramatzelako inauterietan kaleak alaitu». Txarangako kideek humkiturik jaso dute izendapena eta orologiarria, eta suzuria botatzarekin batera lehortu da aserititara arte lustratu den jai.

**Mehearen txanda**  
Tarteka tarteka, unerik beharrezkoetara behintzat, atzeratzen egin zaien eurak eta kazabarrak atzokoan, eta Ostegun Gizen alaiak gozatu ahal izan zen. Ostirala Meheak tarteka du gaur lezioa. Estreina jai egun ausart eta indartsuaren ostean, lotsati datorren eguna. Nahi duenaviztat, noski, izango da batean eta besteon festarako aukera.

**Aurrezteko plan erraza**

**kutxa**

**Aurrezteko plan bat izatea da.**

**%3\* ITN**

**kutxa**



# Inauteri hasiera ospatu dute eskualdeko ikastetxeek

Zizurkilen eta Asteasun gaur ospatuko dituzte inauteriak; egitarauak arratsaldean jarriko dituzte martxan

## Asier Imaz

Ostegun Gizenarekin batera Tolosan inauteriak lehertu ziren atzokoan. Jaiak, ordea, inguruko herriak ere ukitu zituen, eta es-

kualdeko hainbat herriak ikastetxeetan inauteriak ospatu zituzten Ostegun Gizenean. Amasa-Villabonan ikastetxe guztiek bat egin zuten, jaialdi bateratu bat eginaz. Berrobin eta Ibarren ere ikastetxeetako haurrak mozturik igaro zuten goiza, jai giroan. Lehen herrian, unibertsoaren gaia landu zuten: zientifikoa, martzianoak, astronautak, asteroide artifizialak...

Anoetan ospakizunak herene- ginen egin zituzten. Kiroldegia txi-

ki gelditu zen, *Bioaniztasun*aren inguruan eginiko jaialdia ikustera herritar ugari gerturatu baitzen.

Fraisoro zentroan, urteroko ohiturari heldu zioten atzokoan. Bertako egoiliarrek San Millan eskolako 25 haurren bisita izan zuten, eta guztien artean, inauteriak ospatu zituzten. Ohiko txistorra dastatu ondoren, txarangaren doinuekin dantzan girotu zuten eguneko zentroa. Bisitaren helburua, belaunaldien arteko

harremana lantzea izan zela azaldu dute Matia Fundaziotik. Horrez gain, San Millan eta Fraisoren arteko ekimen bat gehiago izan zela azaldu dute, izan ere, urtean zehar beste hainbat ekimen egin dituzte elkarlanean, Fraisorok eta San Millanek.

## Gaur, Zizurkilen eta Asteasun

Asteasun inauteriak gaur arratsaldean ospatuko dituzte, 15:15etik aurrera. Lehenik eta behin, ikastetxetik herrira jaitsi-

ko dira kalejiran, plazan merienda egiteko asmoz. 17:00etan kalejirari berrekingo diote, txarangaren laguntzarekin. Ondoren, zezen suzkoaz gozatzeko aukera egongo da.

Zizurkilen herriko hiru ikastetxeek bat egingo dute, eta 15:00etako desfilean, plazarantz abiatuko dira. Bertan, emanaldia eskainiko diete gerturatzen diren guztiei. Eguraldi txarra egingo balu, Pedro Mari Otaño ikastetxera joango lirake.



Asnoetako inauteri jaialdian kiroldegia txiki gelditu zen, herenegun. A. IMAZ



Irurako haurrek jaialdia astearte iluntzean egin zuten, herriko frontoian. HITZA



Berrobiko eskolan euskal astronauten bisita izan dute inauterietan. HITZA



Fraisoro zentroan San Millan ikastetxeko ikasleak izan ziren atzokoan. HITZA



Amasa-Villabonako hainbat haur suhiltzailez jantzita, merienda garalan. A. IMAZ



Amasa-Villabonan merienda ondoren, haurrek jaialdia egin zuten Olaederran. A. IMAZ

**TONBOLA**  
12:00etatik 22:00etara  
San Frantzisko pasealekuan  
(Artxibo parean)

**Kilometroak 2013**

**Zatoz inauterietan!**

**TABERNA**  
**PLATERTXOAK eta**  
**OGITARTEKOAK**  
egun guztian zehar.

Eserleku ugari!  
11:00etatik 02:00etara  
Euzko Herria plazan  
(Daxerak aurrean)



Herrira-k XIV. Elkartasun Sagardotegia jarri du Lapurdi plazan, Belaten; KMK'13k, bere aldetik, taberna-jatetxea egokitu du Topic zentroaren ondoan, Euskal Herria plazan.

# Inauterietako bi jangela alternatiboak

Asier Imaz Tolosa

**A**urtengo inauterietan bi jangela alternatibo egongo dira Tolosan: Elkartasun sagardotegia, Lapurdi plazan, eta Kilometroak 2013ko taberna, Euskal Herria plazan.

Herrira-k urte osoan zehar haia ekitaldi antolatu ohi ditu, bai eskualdean eta baita Euskal Herri osoan, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde. Ostegun Gizenetik Asteartitara bitarte, Tolosa Euskal Herriko hiriburu bilakatuko denez, aukera paregabea izango du Herrira-k bere aldarria berriro ere lau haizetara zabaltzeko. Aurtengoa Elkartasun Sagardotegiaren hamalagarren urteurrena izango da.

Guztira 120 lagun inguru ariko dira lanean Belateko sagardotegi alternatiboan. Egunero afariak zerbitzatuko dituzte, Isastegiko sagardo kupelen eta ardo kupel txikien babesean. Sagardo denboraldia ireki berri den honetan, kupel desberdinetan txotx egiteko aukera egongo da, beraz, Elkartasun Sagardotegian: Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde. Zaldunita, hau da, inauteri igandea, egun berezia izango da, izan ere, beste egunetan ez bezala, bazkariak zerbitzatuko dituzte.

Menua, esan beharrik ez dago, sagardotegi menua izango da, hamalau urte hauetako esperientzia aberasgarriaren balioarekin. Ba-

lio honen igoerak prezioan ez du eraginik izan, eta aurreko urteetan bezala, poltsikoen krisiaren jakitun, duela bost urteko prezioak mantenduko dituzte. Are gehiago, poltsiko guztietara egokitzeko, menu alternatibo bat ere eskainiko dute, txuleta beharrean, saiheskiarekin.

Herrira-ko kideak duela hilabete inguru hasi ziren etxeko lanak egiten. Herrigintza ez zaie arrotz, eta beti saiatu ohi dira eskualdeko osagaiak lortzen. Sukalde lanetarako karpa txiki bat jarriko dute Lapurdi plazan, ondoan handiagoa duela. Hau jangela izango da, eta bertan, 170 lagun ingururentzat egongo da lekua. Igandean, adibidez, bazkarian jende asko izaten denez, bi txanda egiten dituzte. Lan horri esker, 300-400 lagunentzako zerbitzua eskaintzen dute Tolosako Elkartasun Sagardotegian.

Sarri izan ohi da diruarekin zer egiten duten galdetzen duenik. Horientzat ere, Herrira-ren deialdia: «Espetxe gastuez gain, kilometro gehiegi dituzten bidaiaik, abokatuak eta abar daude. Hona bazkaltzera edo afaltzera etorri, alde batetik, preso eta iheslarienganako elkartasuna azaltzen da, eta bestetik, gastu guzti horiei aurre egiteko ezinbestekoa den laguntza ekonomikoa eskaintzen da. Dirua zertarako den jakinda, Tolosara gerturatzen diren inauterizale guztiak gonbidatzen ditugu Elkartasun Sagardotegira».

Helburu garrantzitsuena inauteriak euskalduntzea izango da, horretarako, deialdia egiten zaie



Goian, Elkartasun Sagardotegiko jangela. Beheran, Euskal Herria plazan KMK13k jarri duen taberna-jatetxea. A.I.

Zerbait gehiago? «Bai. Txooooox, eta euskal preso eta iheslariak, inauterietara!».

## KMK'13, inauterietan

Tolosako Laskorain Ikastolarentzat, eta eskualde guztiko euskaltzaleentzat, urte berezia da aurtengoa, Kilometroak 2013 Tolosan egingo baita. Euskararen aldeko uholdea urriaren 6an lehertuko bada ere, malutaz maluta elur bola handitzen joan beharra dago. Mozorro jaiarekin bat eginaz, Kilometroak 2013ko lantaldeak inauterietarako hainbat ekimen prestatu ditu, eta horien artean, taberna dago. Inauterietako lanak guztia aurrera eramateko, Horiak aurrera emateko, 400 bolutario inguru ariko dira zuzenean lanean; zeharka, beste horrenbeste izango dira, Kazkabarra aisialdi taldea horren adibide.

Helburu garrantzitsuena inauteriak euskalduntzea izango da, horretarako, deialdia egiten zaie

eragile, konpartsa, karroza, taberna eta talde guztiei euskararekin pauso bat gehiago eman dezaten. Balkoirik Politenaren Lehiaketa ere antolatu dutela diote: «Inauterietan *Ahora* laskoriña duen balkoirik politena prestatzen duenak bi kamiseta irabaziko ditu». Argazkia atera, eta *kmk13argazkiak@laskorain.net* helbidera bidali behar da. *Ahora* laskoriña edo banderola lortzeko, KMK'13k Tolosan zabaldutako dendara joatea nahikoa izango da.

Apustu berezia, ordea, Topic ondoan dagoen tabernarekin egingo dute, lan gehiena bertan egitea tokatuko baitzaie. Bertan, 160 lagun ingururentzat jangela egongo da. Alde batetik, menuak zerbitzatuko dituzte eguerdian, hain zuzen ere, Zaldunita, Astelehenita eta Asteartitan. Horrez gain, ogitarteak eta errazioak ere emango dituzte.

Ordutegia ondorengoa izango da: Ostiral Mehean eta Zaldunita

Bezperan, 18:00etatik 01:30era, eta gainontzeko egunetan, 11:00etatik 01:30era.

Euskal Herri plazako tabernaz gain, Tonbola ere jarriko dute KMK'13ko kideek Tolosako inauterietan, hain zuzen ere, San Frantzisko pasealekuan, Beotibar pilotalekuaren ondoan. Bertara gerturatzen direnek, aurpegi ezagunak ikusteko aukera izango dute, hauek banatuko baitituzte sariak, Kilometroak 2013 ekimenari atxikimendua azalduz.

Astelehenitan, Kazkabarra aisialdi taldeak ere bat egingo du KMK'13rekin eta *Ahora* leloarekin, hain juxtu, hori izango da euren mozorroa. Euskarari bultzada emateko asmoz, atzerriko musika komertziala hartu eta euskaratu egin dute.

Azkenik, KMK'13ko kanta aipatu behar da. Aste honetan aurkeztu dute, eta inauterietan txoko guztietan entzuteko aukera izango da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



10°  
1°

| GOIZA       | LAINTUTA |
|-------------|----------|
| ARRATSALDEA | EURIA    |
| BEROENA     | 7°       |
| HOTZENA     | 5°       |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzalea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrau, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### INAUTERIAK

- **11:30.** Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
- **16:30.** Zezen plazan zezen festa izango da, Kabi-Alai txar-rangak alaituta. Ondoren, kalejira.
- **20:30.** Ostiral Mehe eguneko danborrada.
- **20:30.** Txosnagunean Zahagi ardoa. Zuk jana, txoznak edana.
- **22:00.** Txosnagunean kontzertuak izango dira Convenio del Metal, Wainot eta Ai ene taldeekin.
- **22:45.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia izango da, Leidor aretoan.

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea Aiestaran, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

### Garraioa

### GAUR

- Gaur tren eta autobusen ohiko zerbitzua izango da.

## Agurrak

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak



### Urte askoan!

**Oihan Lopetegi Etxedona (Gaztelu).** Gaur 5 urte. Zorion eta muxu asko-asko, bereziki Nahiaren partetik.

### Zorionak!

**Araia Goñi eta Jon Artola (Amezketeta-Andoain).** Zorionak osaba-lobei eta muxu bana etxeko guztien partetik.

### INAUTERIETAKO MENUA

HEGALUZE MENDREZKA ENTISALADA, PIPERMORROKIN ETA TIPULINAREKIN  
ALKATXOFA, SALTEATUAK IBERIKO URDAIZPIKOAREKIN  
GANBOIA PLANTXAN

LEGATZA PLANTXAN BARAZKI KURRUXKATXUAREKIN EDO TXERRIKUMEA

POSTREA: FRUTA ZUKUA ETA TXOKOLATEZKO BROWNIEA

Edaria: Kiantza, txarria...

BEZA bame: 40 euro

**GARRAIO ZERBITZUA ESKAINITZEN DUGU JAIETXERA JOAN ETORRIA EGITEKO**  
INFORMAZIO GEHIAGORAKO DEITU

www.iriartejatebrea.com • J.M. Goikoetxea, 34 • **BERRORI** • Tel.: 943 683 078

